



Miquel Térmens Graells

Bartzelonako Unibertsitateko Informazioaren eta Ikus-entzunezkoen Fakultateko dekanoa

Dokumentazioan doktorea, Historian lizentziaduna eta Bibliotekonomian eta Dokumentazioan diplomaduna da. Bartzelonako Unibertsitateko Bibliotekonomia, Dokumentazio eta Ikus-entzunezko Komunikazioko Saileko irakasle titularra (Bartzelona, Espainia).

Gaur egun, Bartzelonako Unibertsitateko Informazioaren eta Ikus-entzunezkoen Fakultateko dekanoa da. Aurrez, Bartzelonako Unibertsitateak eta Pompeu Fabra Unibertsitateak antolatutako Eduki Digitalen Kudeaketako masterraren koordinatzailea izan da, baita Bartzelonako Unibertsitateko Dokumentazioko lizentziako ikasketaburua ere.

Babes digitalean eta digitalizazio-proiektuen kudeaketan espezializatuta dago. Beste enpresa eta erakunde batzuekin ere lankidetzan dihardu, arlo horietako aholkulari modura.

Babes digitalaren erronkak arte-zentroetan

Arte-zentroek (museoak, galeriak eta arteko dokumentazio-zentroak barne) beren aktibo digitalen babesa bermatzeari loturiko zenbait erronka dituzte aurrez aurre. Alde betetik, zerbitzu publikoa izateko borondatea duten beste erakunde batzuen erronka berak dituzte, hala nola liburutegi eta artxiboak; baina horiei gehitu behar zaizkie artelanen izaerari dagozkion berezko beste erronka batzuk. Hain zuzen ere, erronka horien berezitasun kontzeptual, tekniko eta ekonomikoak hartuko ditugu aztergai, kontuan hartuta, betiere, babes digitaleko edozein sistemak ezaugarri izan behar duela jasagarritasuna.